

# Getxo >MEETING<



## **Egin zerbait berria. Zure enpresarako produktu edo zerbitzu berri bat sortzeko gakoak**

Zurekin partekatu nahi ditugu otsailaren 14ko Getxo MEETINGen landutako gairik garrantzitsuenak eta ateratako ondorioak, eta pentsatu eta idazteko lau ariketa proposatu nahi dizkizugu.

- **Zertarako zerbitzu edo produktu berri bat?** Arrazoi ugari egon daitezke zerbitzu berri bat sortzeko: jende gehiagorengana iristea, lehiakideengandik bereiztea, ustiatu gabeko talentua baliatzea, hartzaile eskusiboagoekin konektatzea, motibazioa mantentzea, haztea...

*Idatzi modu laburrean zein den zerbitzu berri horren motorra. Baina, bereziki, garrantzitsuari buruz pentsatu: Artatu gabeko beharrak asetzen ditu?*

- **Jar zaitetz euren tokian: Zer behar dute zure bezeroek?**

Adierazten dituzten beharretan zentratu behar gara. Sarritan esaten digute zer behar duten, baina ez dugu jasotzen “aukera senarekin”. Iruzkina bakoitzean, kontsulta bakoitzean eta galdera bakoitzean asetzeke dagoen behar bat dago ezkutatuta. Entzutea, galdera irekiak egitea eta konfiantza giroko elkarrizketetarako uneak sortzea lagungarri izan daiteke behar zehatzak ezagutzeko eta bezeroek zer eta nola nahi duten jakin ahal izateko.

*Egin ezazu honako galdera hau erantzungo duen zerrenda: Zein arazo ditu? Zer behar du? Nola erraztu diezaiokegu bizitza?*

- **Zure hartzaile erabiltzaileak eta zure bezeroak jende bera dira?** Askotan, ordaintzen duena ez da izaten zerbitzua erabiltzen duena. Adibidez, ume baten urtebetetzeko ospakizunean. Horrenbestez, azken hartzaileari (umeak) gustatuko zaizkion zerbitzu eta produktuak sortu behar ditugu, aldi berean erosleak (gurasoak) konbentzitzen dituztenak.

*Ez badira jende bera, egin aurreko ariketakoa bezalako zerrenda bat, baina bi zutabekoa.*

- **Beharraren eta onuren arteko espazioa da ideia.** Ideia guztiek erantzuten diete behar batzuei; era berean, aurrera eramatea onuragarria izan daiteke zenbait aspektutan.

*Kostuetan eta esfortzuan pentsatu gabe, zerbitzu edo produktu berri bati buruzko ideia bat bururatzen zaizun bakoitzean, idatz ezazu eta deskribatu zein beharri erantzuten dion eta nolakoa izango litzatekeen horren eragina.*

Balio izan dizu? Hurrengo Getxo MEETINGen ere horren inguruan lanean jarraituko dugu. Saio honetan “ZER?” galdera landu dugu, eta otsailaren 28koan “NOLA?” galderarekin jarraituko dugu. Galdu egingo duzu?

Getxo MEETINGen ikusiko dugu elkar, beren kabuz lan egiten duten profesionaleri zuzendutako topaketetan.